

Babestutako hazitegian ereitea

Babestutako hazitegian bilatzen duguna ondo erretzeko tenperatura eta hezetasun egoki baten bidez laborearen babesa lortzea da. Hori dela eta, tenperatura igotzeko edozein metodo erabiltzen dugula ere (hartidura organikoa, bigungarria, erresistentzia termikoa, burusi termikoa, plastikoa, etab.) garrantzi handikoa izango da **substratu organikoa**, bertan erneko baita hazia.

Substratu hau ondo heldutako konpost itxuradun materia organiko eta hare edo bermikulita (hezetasuna gordetzen duten mineral oso porotsuen) bidez osatu behar da eta **honako ezaugarriak** izan behar ditu:

- Oinarrizko elikagai iturria izatea (bilandatu arte landaretxoaren garapen egokia bermatuko dutenak).
- Istildu gabehezetasuna gordetzeko gaitasuna izatea (horregatik soltea eta porotsua izan behar da).
- Ez trinkotzea, galkatzea edo gogortzea.
- Antzua izatea (beste belar batzuen hazirik ez izatea)

Behin tenperatura egokidun sistema eta substratu aberatsa lortu ondoren, hazitegiaren oinarrizko urratsak hauek izango dira:

1. **Ureztaketa:** Landareak hezetasun konstantea behar du baina inoiz ez da putzurik egin behar eta ez du ur gehiegirik izan behar. Oso garrantzitsua da baita deshidratazioa ekiditea. Horretarako, lainoztatzaile bidez egindako ohiko ureztaketak beharko ditu.
2. **Hazitegi arteko birlandatzea:** erdibideko birlandaketa da. Hazitegi batean ditugun landaretxoak (oro har, banakako edukiontzia izaten dira) beste hazitegi batean jartzen ditugu toki gehiago izan dezaten. Askotan, esperientzia edo aurreikuspen ezagatik, beharrezkoak diren baino hazi gehiago ereiten ditugu. Hazitegi arteko birlandaketak landare guztiak aprobetxatzeko aukera emango digu. Kontu handiz egin beharreko lana da landarea gazteegia eta samurra delako. Jatorrizko hazitegia eta hazitegi hartzailea ondo bustiko ditugu eta ondoren, eguzki esposizio zuzena ekidingo dugu.
3. **Lurrean birlandatzea:** Gure hazitegiko emaitza gure baratzera eramateko momentua da. Laborearen arabera, eragiketa errazagoa edo kontu handiz egin beharrekoa izango da. Adibidez, **lekaleak bezalako laboreek ez dute bilandaketa jasaten** eta azenarioak edo artoaren kasuan, sofritzen dutena kontuan hartuta, ez du hazitegian hazterik merezi.

Porruak eta tipulak berriz, ondo eusten diote birlandaketari. Edozein kasutan, eta hazitegi arteko birlandaketaren kasuan bezala, kontu handiz egin beharreko lana da eta sustraiak buztin edo substratu hondarrez lagunduko ditugu (ageriko sustraiak baldin badira eta erro-lurrik ez baldin badute), birlandaketaren ondoren berehala ureztatuz eta eguneko unerik beroenak eta argienak ekidinez.

Hala ere, birlandaketak laborearen produktzioa aurreratzea ahalbidetzen digu landatzerakoan une klimatiko egokiena hautatzen dugulako. Baratzean izan nahi ditugun aleen kopuru zehatza bermatzen digu eta zuzeneko ereintzak duen gainazaleko zaintza errazten digu laboreak gutxieneko garapena izan arte.

La siembra en semillero protegido

En un semillero protegido lo que estamos buscando básicamente es la protección del cultivo para su buena germinación por medio del control óptimo de temperatura y humedad. Por tanto, sea cual sea el método empleado para subir la temperatura (fermentación orgánica, acolchado, resistencias térmicas, manta térmica, plástico, etc), cobra un importancia fundamental el **sustrato orgánico** que será el medio en que esa semilla germine.

Este se ha de componer de una mezcla de materia orgánica en forma de compost bien maduro y arena o vermiculita (minerales muy porosos que retienen la humedad) y debe reunir **las siguientes características:**

- Ser fuente de alimentos básicos (que aseguren el óptimo desarrollo de la plántula hasta su trasplante).
- Capacidad de retención de la humedad sin encharcamientos (por eso ha de ser poroso y suelto)
- No compactarse, apelmazarse o endurecerse.
- Ser estéril (no contener semillas de otras hierbas).

Una vez hemos conseguido un sistema con temperatura adecuada y un sustrato rico, los pasos básicos del semillero serían:

1. **Riego:** La planta necesita humedad constante pero nunca encharcamiento ni exceso de agua. También es importante evitar que en ningún momento llegue a deshidratarse. Para ello precisará de riegos regulares, con nebulizares.
2. **Repicado:** Consiste en el trasplante intermedio de plántulas de un semillero de origen a otro (generalmente recipientes individuales) buscando un mayor espacio para cada una de ellas. Muchas veces por inexperiencia o previsión sembramos más semillas de las necesarias por unidad de superficie. El repicado nos permitirá aprovechar todas las plantas. Es una operación muy delicada porque la planta es demasiado joven y tierna. Conviene extremar las precauciones humedeciendo bien el semillero de origen y el receptor y evitando la exposición directa al sol después de la operación.
3. **Trasplante:** Es el momento de trasladar a la huerta el resultado de nuestro semillero. Según el cultivo será una operación más delicada o más fácil, de hecho **algunos cultivos no soportan el trasplante** como las leguminosas y otros como la zanahoria o el maíz sufren lo suficiente para que su cultivo en semillero no merezca la pena, algunos en cambio son muy resistentes a ello como el puerro o la cebolla.

En cualquier caso y como en el repicado, esta operación requiere de máximo cuidado, intentando siempre acompañar las raíces con barro o restos del sustrato (si son a raíz desnuda y no tiene cepellón), regando el cultivo inmediatamente después del trasplante y evitando los momentos de más calor y luz del día.

Aún así el trasplante nos está permitiendo adelantar la producción del cultivo al plantarlo en el momento climático óptimo, nos asegura el número exacto de ejemplares que queremos tener en la huerta y nos facilita los cuidados en superficie que la siembra directa tiene hasta el desarrollo mínimo del cultivo.